


PSIKOLOGIA ETA KOMUNIKAZIOA: POLARIZAZIOARI BURUZKO TXOSTENA



ITSASNE ZIPITRIA SINDE
2020-2021 IKASTURTEA

❖ **ISTORIAA:**

“Patxi ezkondua dagoen gizona dugu, bi seme-alaba eskola garaian dituenak eta lan segurua du baina soldata baxuarekin. Patxi oinarritzko beharrak ordaindu ditzake baina luxurik gabe. Entzun du ezaguna ez den konpainia baten akzioak bere balioak hirukoiztu ditzakeela produktu berri baten harrera onaren arabera edota nabariki murriztu produktu berria salduko ez balitz. Patxi ez ditu aurrezpenik, beraz konpainian inbertitzeko bere bitza aseguru saltzea kontsideratzen ari da”.

Imajina ezazu Patxi aholkatu behar duzula, zein arrisku bere gain hartu beharko luke bere bitza segurua saltzeko eta akzioak erosteko:

1—2—3—4—5—6—7—8—9—10

1: Ez da arriskatu behar da

10: Guztiz arriskatu behar da

Behin galdera honi erantzun ondoren, adierazi: Gelako besteok zein erantzun eman ote duten uste duzu? Erantzun komuna zein ote?

❖ **ISTORIA:**

Koldo idazle bat dugu, non sormen handiko talentua duela diote, orain arte nobela beltz merkeak egiten bizi izan dena. Duela gutxi ideia bat izan du nobela garrantzitsu bat idazteko. Idaztea posible izango balu eta onartu izango balitz, literaturan inpaktu egokia eta bere karrerarako inpultso izango zen. Bestalde, berak ezin badu ideia elaboratu edota nobelak porrot egingo balu, denbora eta energia gastatuko luke ordainik jaso gabe.

Imajina ezazu Koldo aholkatu behar duzula, zein arrisku bere gain hartu beharko luke nobela idazteko saiakuntzan:

1—2—3—4—5—6—7—8—9—10

1: Ez da arriskatu behar da

10: Guztiz arriskatu behar

Behin galdera honi erantzun ondoren, adierazi: Gelako besteok zein erantzun eman ote duten uste duzu? Erantzun komuna zein ote?

PRAKTIKA: TALDE POLARIZAZIOA: ERABAKIAK HARTZEA

- 1. HELBURUA DEFINITU ETA HIPOTESIAK.**
- 2. DISEINUAREN AZALPENA.**
- 3. EMAITZEN INTERPRETAZIOA**
- 4. KONKLUSIOA**
- 5. EMAITZEN ANALISIA: IKASGELAKO EZTABAIDAK ETA TAULA.**

1. Helburua eta Hipotesiak:

Praktika honen helburua polarizazio fenomenoaren aztertzea da, hau da, ea taldearen iritziak norbanakoen iritziengan eragina duen aztertzea.

Hipotesiak:

- 1- Talde erabakiak polarizazioa sortzen dute: domeinu zentzuan polarizatuagoak dira banakoekin konparatuaz (ez arrisku edota arriskatu behar)?
- 2- Polarizazioa gizarte konparaketa simple gisa baxuagoa da bizitutako eztabaida batek sortutakoa baino: taldeko erabakiak konparatu eztabaida gabe versus eztabaida baldintzetan (eragin normatiboa versus informatiboa).
- 3- Ezjakintasun pluralista eta Primus inter pares sesgoa: besteok nola erantzungo duten auresate. Gizakiok esperotako arauen gainetik jartzen dira: tendentzia arrisku egoerak hartzeraren denean "nobelaren kasua" arrisku mailaren atribuzioa bakoitzaren handiagoa izango da (puntuazio altuak eskalan) batzbestekoa edota besteon arrisku atribuzioarekin konparatuaz.

Gizakiok behatutako arauen gainetik jartzen dira taldeetik bereizteak (bakar sentitzeko beharra) azalduko luke taldean polarizazio handiak ematea.

2. Diseinua azaldu:

Gelakideak lau talde desberdinetan banatu ziren. Lau talde hauen barnean bi azpitalde bereiztu ziren. Azpitalde batek emaitzen balorazio komuna egin behar zuen, haien artean emaitzak konpartitu behar zituzten arrazoiak emanez. Balorazio komunaren helburua eztabaida sortzea zen. Beste azpitaldeak, aldiz, ez zuen eztabaidatzeko aukerarik eduki, norberak bere emaitzen berri eman zuen soilik.

Bi azpitaldeetan lehenik eta behin, bakoitzak bere emaitza jarri zuen. Ondoren, besteek jarriko zuten emaitza apuntatu zuten. Gerora, bakoitzak bere emaitzak ahoz goran esan zituen eta azpitalde batean eztabaida eman zen, emaitzak konpartitzen zituzten heinean argudioak esaten baitzituzten.

Bestalde, azpitalde bakoitzari istorio desberdina kontatu zaie, batzuei Patxiren istorioa kontatu zitzaie, arrisku altukoa zena; eta besteari Koldorena, arrisku baxukoa. Arrazoi honengatik bi azpitaldeek lortutako emaitzak zeharo desberdinak izan ziren.

3. Emaitzen interpretazioa

GALDERAK:

- **Esperimentuko bi baldintzetan polarizazioa ematen da?**

Polarizazioa eztabaida baten ondorioz, pentsamendua mutur batetik bestera aldatzea da.

Behean dauden taulei erreparatuz ohartuko gara Koldoren istorioa entzun duen taldean, eztabaida eman den taldean, polarizazioa eman dela, emaitzetan aldaketak egon dira, batzuek ez dute beraien hasierako emaitzarekin aurrera jarraitu, taldekideek emandako argudioen ondorioz aldatzea erabaki dute.

Patxiren istorioa entzun duten taldean, eztabaidarik egon ez den taldean, aldiz, ez da polarizaziorik eman, gehienek ez dute aldaketarik egin beraien emaitzetan, eta aldaketa egon den kasu gutxietan ez da bortitza izan, desberdintasuna oso txikia izan da.

- **Homogeneitatea ematen al da esperimentuko bi baldintzetan eta zer esanahi du?**

Homogeneitatea kontestu berean istorio berdina entzun duten pertsonen emaitzak berdintsuak edo antzekoak izatea da.

Koldoren istorioa entzun duten bi taldeen kasuan, arriskua txikia zenez, homogeneitatea ez da hain nabaria izan.

Patxiren istorioa entzun duten taldeen kasuan, aldiz, homogeneitatea nabariagoa da, eta hau estuki lotuta dago istorioa arrisku altukoa izatearekin.

- **Nola jakin dezakegu eragin normatiboa eman den?**

Eragin normatiboa gainontzekoen datuak nahiko antzekoak direla ikusita, norberak besteen datuengatik influentziatua sentitzea da, eta ondorioz, gehiagoak duen datua jartzea da. Hau esanda, taulak begiratzen baditugu eragin normatiborik egon ez dela edo egon bada maila oso baxuan eman dela ikusiko dugu. Edurneren kasuan esaterako, pre erantzunetik post erantzunera puntu bateko aldaketa egon da, eta baliteke aldaketa hori eragin normatiboaren ondorio izatea.

- **Nola jakin dezakegu eragin informatiboa eman den?**

Eragin informatiboaren ondorioz, taldekide gehienak adostasun batera iritsi dira edo ez badira adostasun oso batera iritsi, besteek emandako argudioak entzuteak norberak bere erantzuna aldaraztea ekarri baitu.

Argia da eztabaida eman den bi taldeetan eragin informatiboa eman dela, aurretik aipatutako arrazoiengatik.

- **Eman al da Primus inter pares efektua, eta esperimentuko zein baldintzetan?**

Primus inter pares efektua antzeko pertsonak baino gehiago, hobetoak garelako

pentsetzeko dugun joera da; beti ere antzeko kontestu batean egonik. Praktika honetan primus inter pares efektuak norbera bere taldekideak baino ausartagoa dela pentsetzean datza eta horregatik gelakide gutxi batzuk pentsetu dute taldekideen emaitza beraiena baino baxuagoa edo altuagoa izango dela, istorioaren arrisku-mailaren arabera.

Patxiren istorioa entzun duten kasuan, Imanolek primus inter pares efektuaren eragina du, baina Itsasneren kasuan aldiz, guztiz kontrakoa. Koldoren istorioa entzun duten kasuan, Maria eta Julenengan primus inter pares efektua eman da. Hala eta guztiz ere, ez dira efektu hau argitzek adibide garbienak.

- **Eztabaidan emandako argudio nagusiak taldeko erabakietan erabiliak izan al dira?**

Koldoren kasuan, eztabaida hasi zenean bi tendetzia nagusi zeuden, baina azkenean, adostasun batera heldu behar zenez, tendentzia bat nagusitu zen, nahiz eta taldekide guztiak ez egon ados.

Patxiren kasuan Oierrek emandako argudioak nagusitu ziren, eta erabakia hartzerako garaian bere iritzia nabarmendu zen, gainontzeko taldekideen baieztapenarekin. Hartaz, argudioak erabilgarriak izan ziren adostasun batera iristeko.

- **Egon al da gehiengo kontsistente bat? Eta gutxiengo kontsistente bat?**

Orohar, gehiengo kontsistente bat egon da, taldeko erabakia hartzerako garaian baten bat izan ezik denok zeudelako ados; eta erabakia hartu ondoren, azkenean guztiok aldatu dituztelako beraien emaitzak.

- **Praktika hasieran azaldutako zein hipotesi bete da?**

Lehenengo hipotesia betetzen da, izan ere, talde erabakiak polarizazioa sortzen duela argi ikusten da, talde bateko azken emaitza 1 izanik eta bestearena 10 izanik. Horretaz gain, bigarren hipotesia ere betetzen da, lehenengo hipotesiarekin zeharo lotuta baitago, eta eragin informatiboak eragin normatiboak baino pisu handiagoa baitu.

4. Konklusioak:

Praktika honetatik atera dugun ondorio nagusia polarizazioa eztabaida ematen den kasuetan soilik ematen dela da. Fenomeno honen ondorioz, informazioa partekatu, eta informazio berria bereganatzen dira; horregatik, norberak bere iritzia zalantzan jartzen du, argudioak edo besteek esandakoa entzuteak agian lehendik geneukan iritzia ez zela zuzenena pentsarazten baitigu.

Eztabaidarik, eman ez den kasuetan, berriz, ez da polarizaziorik eman. Nahiz eta besteen emaitzak jakin, ez dugu gurea zalantzan jartzen, eta gehienetan gure emaitza zuzenena dela pentsetzen jarraituko dugu, hura aldatu gabe.

Bestalde, talde baten barnean arrisku gehiago hartzen ditugula nabari da, ausartagoak garela itxura emateko.

5. Emaitzen analisia

PATXI AITA EZTABAIDARIK GABE				PATXI AITA EZTABAIDAREKIN			
Izenak	PRE	ALDAKETA	POST	Izena	PRE	ALDAKETA	POST
Eunate	3 (3).	+4	7	Maidier I.	3 (4)	=	3
Ikerne	8 (7).	=	8	Maidier A.	5 (5).	-4	1
Saskia	3 (3).	=	3	Edorta	1 (3).	=	1
Itsasne	2 (4)	=	2	Miren F.	6 (7)	-5	1
Imanol	9 (6).	-1	8	Oier	1 (3)	=	1
Jone	3 (3)	=	3	Eneritz	8 (7)	-7	1
Mireia	2 (3)	=	2	June	6 (5)	-4	2
Talde erabakia: 1							
Media Pre	4,28 (4,14)		Post 4,71	Media Pre	4,28 (4,86)		Post 1,43
Moda Pre			Post	Moda Pre			Post
SD			SD	SD			SD

KOLDO IDAZLEA EZTABAIDARIK.				KOLDO IDAZLEA EZTABAIDAREKIN			
Izenak	PRE	ALDAKETA	POST	Izena	PRE	ALDAKETA	POST
Edurne	6 (8)	+1	7	Aintzine	10 (8)	=	10
Ane A.	7(7)	=	7	Nerea T.	8 (5)	+2	10
Iker	8(7)	=	8	Nerea A.	8 (7)	+2	10
Uxue	7 (8)	+1	8	Janire	9(9)	+1	10
Gaizka	7 (9)	=	7	Maite	5 (6)	+5	10
Maddi	8 (7)	=	8	Unai	7 (8)	+3	10
Maria	10 (7)	=	10	Julen	10 (8)	=	10
				Taldea erabaia: 10			
Media Pre	7,57 (7,57)		Post 7,85	Media Pre	8,14 (7,57)		Post 10
Moda Pre			Post	Moda Pre			Post
SD			SD	SD			SD